

## **2025EKO URRIAREN 20KO** **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urriaren hogeian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2025eko urriaren 6an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 80 zenbakidun zerrenda, EHUN ETA BERROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA BAT euro ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU zentimokoa (154.881,73 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

### **III.- UDALAREN ONDAREZKO ASEGURUEN ETA ASEGURU PERTSONALEN KONTRATUEN BIGARREN LUZAPENA.-**

Lazkaoko Udaleko Idazkariak, Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratuen bigarren luzapena proposatu du.

Aseguru hauen kontratuak lehiaketa ireki bidez esleitu ziren eta ondorengo aseguru-etxeekin sinatu ziren:

**I. lotea:** Udalaren ondarea osatzen duten higieizinei (edukitzailea eta edukia) eta higigarriei egindako kalteen aseguru poliza, AXA SEGUROS GENERALES SOCIEDAD ANONIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS aseguru-etxearekin. Kontratua-  
ren sinadura data: 2023/12/22.

**II. lotea:** Lazkaoko Udalak, jabari publikoko eta ondarezko jabetzako ondasunen titular eta zerbitzu publikoen emaile den aldetik, hirugarrenen aurrean izan dezakeen erantzukizun zibilaren/ondare-erantzukizunaren ondoriozko kalteen ase-

guru poliza, MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.

**III. lotea:** Lazkaoko Udaleko enplegatu publikoen eta hautetsien erantzukizun zibilarren aseguru poliza, WR BERKLEY EUROPE AG, SUCURSAL EN ESPAÑA aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.

**IV. lotea:** Bizitza eta istripu polizak, hautetsien taldea, MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/29.

**V. lotea:** Istripu polizak, bolondresen taldea, MGS SEGUROS Y REASEGUROS S.A. aseguru-etxearekin. Kontratuaren sinadura data: 2023/12/22.

Kontratu hauek urtebeterako izenpetu ziren eta urte beteko 3 luzapen egiteko aukera zuten. Urtebeteko epea 2024ko abenduaren 31an bete zen eta hori ikusirik, Tokiko Gobernu Batzorde honek aseguru hauen kontratuen urte beteko lehen luzapena egitea erabaki zuen.

Lehen luzapen honen amaiera data 2025eko abenduaren 31n izango dela ikusirik, bigarren luzapena egiteko proposamena luzatu du Udal idazkariak urriaren 16ko data duen txostenaren bidez.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, gaia aztertu ondoren, aho batez, Udalaren ondarezko aseguru eta aseguru pertsonalen kontratuen bigarren luzapena egitea erabaki du.

#### IV.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA, MATERIAL ELEKTRIKOAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, material elektrikoaren hornikuntza kontratatzeke kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeke hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zera erabakitzen du:

1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez material elektrikoaren hornikuntza kontratatzeke hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikita-

ko hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.

- 2.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

#### V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

##### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 25-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea irailaren 25ean, astean 2 orduz, etxeko garbiketarako. Onuradunen ekarpena % 74koa izango da.
- 25-11-12 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urriaren 9an, asteleheneetik larunbatera eguneko 3 orduz, etxeko garbiketa eta laguntza pertsonalerako. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 16-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea astean 4 ordutik 2 ordura, onuradunen egoera aldatu delako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 22-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea urriaren 2tik onuradunak eskatuta.
- 25-11-10 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea irailaren 25ean, astean 2 orduz, etxeko garbiketarako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.

##### Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 25-01-008 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematetik 123 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea uztailetik abendura, eta alokairu gastuetarako hilean 168 €-ko dirulaguntza ematetik 205 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea uztailetik abendura. Eman daitekeenaren % 56etik % 82ra igotzen da.

##### Gureak lantegira joateko garraiorako dirulaguntza.-

- 25-17-01 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko 2025 urterako 447,70 €-ko dirulaguntza ematea. Zehazki 40,70€ hilean, abuztuan izan ezik.

- 25-17-02 zenbakidun esped.: Gureak lantegira joateko 2025 urterako 447,70 €-ko dirulaguntza ematea. Zehazki 40,70€ hilean, abuztuan izan ezik.

#### Familia laguntzak.-

- 25-15-02 zenbakidun esped.: hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea. Horretarako aurrekontua 1.540 €-koa da.

#### Gizakia Helburura joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-01 zenbakidun esped.: garraiorako irailean 300 €-ko dirulaguntza ematea, Gizakia Helburura egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko.

#### AGIPADera joateko garraiorako dirulaguntzak.-

- 25-14-02 zenbakidun esped.: AGIPADera egiten dituen garraio gastuak ordaintzeko ekainerako 26,10 €, uztaileko 104,40 €, abuzturako 300 € eta irailerako 300 €-ko dirulaguntzak ematea.

#### Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak.-

Lazkaoko udalerrian mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonen estimulazio edo errehabilitazio programak egiteko laguntzak emateko 2025 urterako deialdia onartzea. Honakoa dio deialdiak:

##### *"1.artikulua. Xedea.*

- Laguntza hauen deialdiaren helburua Lazkaoko herrian mendekotasuna edo desgaitasuna duten 6 eta 25 urte bitarteko pertsonen estimulazio edo errehabilitazio tratamendua behar duten pertsonen urteko gastuak arintzea da.

##### *2.artikulua. Aurrekontu diru hornidura*

Deialdi honetan emango diren diru laguntzen zenbateko osoa 10.000,00 eurokoa izango da, Lazkaoko udalaren 2025eko aurrekontu orokorreari dagokiena.

##### *3.artikulua. Ezargarri den araudia.*

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; diru Laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailearen 21ekoa; eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 20an onartutako mendekotasuna edo desgaitasuna duten Lazkaoko udalerriko pertsonak estimulazio /errehabilitazio programak egiteko, laguntzak emateko oinarriak.

##### *4.artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.*

#### *4.1 Dokumentazioa:*

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Eskatzailea eta familia unitatea osatzen dutenen Nortasun agiriaren fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren desgaitasun ziurtagiria (udalari ziurtagiria lortzeko baimena ematen bazaio, ez da aurkeztu beharko).
- Eskaeraren aurreko urtean egindako tratamenduaren urteko gastuaren egiaztagiria.
- Kontu zenbakiaren 20 digituak.

Eskatzaileak bere familia unitatearen egoera ekonomikoa baloratzea nahi badu, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Lazkaoko udaleko Gizarte Zerbitzuei baimena ematen dion agiria, behar diren datuak sektore publikoko edozein erakunderengandik zuzenean jaso ditzan, laguntza hauek lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- Jasotako diru sarrera garbien agiria (10T, nominak, pentsioa ... )
- LANBIDEK, Estatuko Enplegu Zerbitzuak eta / edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako urteko prestazioei buruzkoa edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonena.

#### *4.2. Eskaerak aurkezteko epea:*

- Eskaerak 2025eko azaroaren 17tik 28ra arte aurkeztu ahal izango dira.”

### VI.- BERDINTASUN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Berdintasun arlotik, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko hausnarketa bultzatzeko eta arazo honen aurrean gizarteak duen arduraz jabetzeko xedearekin, Tokiko Gobernu Batzorde honi luzatu zaio Sormen lehiaketaren 2025 urteko deialdia onartzeko proposamena.

2025 urteko deialdiak honela dio:

#### **“2025 URTEKO “SORMEN LEHIAKETAREN” DEIALDIA**

IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

*1. artikulua. Xedea.*

Lehiaketaren helburua, azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna izanik, gai honen inguruko hausnarketa bultzatzea da.

Horrez gain, ekimen honen xedea da jendartea jabetzea egoera honen aurrean duen arduraz. Eta zer esanik ez, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako kontzientzia-zioa eta sentsibilizazioa sustatzea; bai parte-hartzaileengan, baita zeharka parte hartuko duten edo eragingo dieten herritarrengan ere.

Horretarako, lehiaketa honetan parte hartzen dutenek book trailer bat aurkeztu beharko dute. Book trailerra, liburuak aurkeztu edo iragartzeko bideoa da, filmetako trailerren antzekoa.

Book trailer bat sortzeko, liburu bat, irudiak (bideo zein argazkiak) testua, ahotsa eta musika behar dira, irudimena eta gogoarekin nahastuta. Bideo hauek bideo digitaletarako erabiltzen diren formatuetan sortzen dira, eta telebista edo Internet bidez partekatzen dira.

## *2. artikulua. Gaia.*

Aukeratutako liburuetako gai nagusiak feminismoa, tratu onak eta bizikidetzaz izango dira. Urtean zehar hainbat prebentzio programa eta kanpaina garatzen dira, baina morez markatutako eguna azaroaren 25a izaten da, non herritarrak, mugimendu feministak zein administrazio erakundeek bat egiten duten, eta ahotsa altxatzen duten indarkeria matxistaren kontra. Sormen lehiaketa testuinguru honetan kokatzen da.

## *3. artikulua. Parte-hartzaileak.*

3.1- Lehiaketa honetan, banaka edo taldeka parte hartzeko aukera izango dute, Lazkaoko udalerrian erroldatuta dauden biztanleek, San Benito ikastolako ikasleek eta Maizpide Barne-tegiko ikasleek.

3.2- Adin nagusiko pertsonak beraien kasa parte hartu dezakete. Baina adin txikikoek baldintza bezala izango dute, gutxienez, adin nagusiko taldekide edo arduradun bat izatea.

3.3- Taldeka parte hartzekotan, taldekideen artean batek arduradun izaera hartuko du, eta komunikazio oro berarekin izango da.

3.4- Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkez dezake lehiaketara. Hau da, ezingo da talde ezberdinetako partaide izan, ezta taldeka eta banaka parte hartu ere. Hala ere, arduradun izaera hartzen duen pertsona bera izan daiteke talde edo norbanako desberdinen arduradun, baina inoiz ez partaide.

## *4. artikulua. Lanen ezaugarriak.*

4.1- Lehiaketako gaia hartuta, bideo formatuan aurkeztu behar da lana, baina grabaketan bertan beste edozein sorkuntza mota ager daiteke. Adibidez, marrazkiak, eskulturak, argazkiak, bertsoak, idazkiak, irakurketak, dantzak, antzerkiak etab.

4.2-Testuak ahoz edo idatziz agertzekotan, horiek euskaraz izan beharko dute.

4.3- Epai-mahaiak ikusten badu aurkeztutako lana beste lan baten kopia edo plagioa dela, parte-hartzailea(k) lehiaketatik kanpo geratuko da /dira.

4.4- Book trailerrek gehienez 2 minutuko iraupena izango dute.

4.5- Lan bakoitzak izenburu bat izango du, eta hori erabilia identifikatuko da lehiaketan.

4.6- Ezingo da beste lehiaketa batean aurkeztutako lanik aurkeztu.

4.7- Ez da mingarria edo iraingarria izan daitekeen edukirik onartuko. Irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentutako mezu positiboak, eraldatzaileak... lehenetsiko dira.

4.8- Antolatzaileek lan bat edo batzuk lehiaketatik kanpo lagatzea erabaki dezakete, aurkeztutako lanen edukiek ez badituzte aurrez aipatutako baldintzak betetzen edo lehiaketaren helburuen kontrako edo kalterako jarrera adierazten badute. Erabakia, eragiten dien parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

#### *5. artikulua. Lanen aurkezpena.*

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Book trailerrak [berdintasuna@lazkao.eus](mailto:berdintasuna@lazkao.eus) helbide elektronikoan aurkeztu beharko dira. Bideoekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte parte-hartzaileek:

a) Eskaera orria, izen-emate eskaera eginez. Azken hau Udalaren [www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus) webgunean eta Udaletxeko harreran aurki dezakezue.

b) Parte-hartzailearen NAN dokumentuaren fotokopia, edota adin txikikoa bada, arduradunaren NAN dokumentuaren fotokopia. Taldeen kasuan, arduradunaren NAN dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko da.

Baldin eta eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, edo oinarri haue-tako baldintzak beteko ez balitu, 10 lan eguneko epean forma-akatsak zuzentzeko edo dokumentazioa osatzeko eskatuko zaio. Gainera, ohartaraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela, eta, horrenbestez, eskaera besterik gabe artxibatu egingo dela, gaur egungo arauak agintzen duenez.

#### *6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskabideak, 2025eko azaroaren 3tik azaroaren 28ra bitartean aurkeztu ahal izango dira.

#### *7. artikulua. Epai-mahaiaren osaera.*

Epai-mahaia honako pertsona hauek osatuko dute:

- Lazkaoko emakume elkarte edo mugimendu feministako ordezkari batek.

- Berdintasun batzordeko batzordeburuak, edota berak izendatutako beste norbaitek.
- Lazkaoko Udaleko gizarte langile batek.

### *8. artikulua. Balorazio irizpideak.*

8.1- Epaimahai kideek lan bakoitza 0 eta 100 bitartean baloratuko dute, honako irizpideen arabera:

- Lanarekin transmititzen den mezua: 0-80 bitartean.

0-25 puntu bitartean, lanarekin aditzera ematen den mezuak ezarritako gaiarekin duen harremana.

0-20 puntu bitartean, mezuaren ikuspegi berritzailea.

0-15 puntu bitartean, mezuak transmititzen duen jarrera positibo eta eraikitzailea.

0-15 puntu bitartean, mezuaren ulergarritasuna.

0-5 puntu bitartean, mezuaren gaurkotasuna.

- Lanaren aurkezpena: 0-20 puntu bitartean

0-10 puntu bitartean, mezuak eragiten duen inpaktu bisuala.

0-10 puntu bitartean, irudiak garbi ikustea.

8.2- Berdinketa egotekoan, epaimahaikideek banakako boto bidez ebatziko dute puntuazio bera duten hautagaitzen hurrenkera, lana bere osotasunean hartuta.

### *9. artikulua. Sariak.*

9.1- A eta B sari kategoriak bereiztuko dira. A kategorian 12 urtetik beherako parte-hartzaileak sarituko dira. B kategorian berriz, 12 urtetik gorako parte-hartzaileak sarituko dira.

Kategoria bakoitzean, epaimahaikideek emandako puntuazioaren arabera, puntu gehien lortu dituzten lehen bi lanak hurrenkera horretan sarituko dira:

#### A KATEGORIA:

1. Saria: Lazkaoko saltoki txikietan gastatzeko 120 euroko balioa duen bonoa.
2. Saria: Lazkaoko saltoki txikietan gastatzeko 80 euroko balioa duen bonoa.

#### B KATEGORIA:

1. Saria: Lazkaoko saltoki txikietan gastatzeko 120 euroko balioa duen bonoa.

2. Saria: Lazkaoko saltoki txikietan gastatzeko 80 euroko balioa duen bonoa.

9.2- Bonoak gastatzeko argibideak saritutako parte-hartzaileei emango zaizkie.

9.3- Bonoak 2026 urteko urtarrilaren 31 baino lehen gastatu beharko dira.

9.4- Parte-hartzaile guztiei oroigarri bana emango zaie.

#### *10. artikulua. Akordioa eta jakinarazpen epea*

Tokiko Gobernu Batzordea izango da sariak emateko akordioa hartuko duen organua, epaimahaiaren proposamenaren aurrean. Akordioa hartu eta jakinarazteko epea hilabete-koa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

#### *11. artikulua. Sari banaketa.*

Sarituen zerrenda publiko egin aurretik, hau sarituei jakinaraziko zaie.

Sari-banaketa non eta nola egingo den erabaki eta jakinaraziko da.

#### *12. artikulua. Lanen argitaratzea.*

Aurkeztutako lan guztiak, baztertuak izan ez badira, behinik behin, Lazkaoko Udalaren web orrian jarriko dira ikusgai.

#### *13. artikulua. Lanen ustiaketa eskubideak eta oinarrietan jasotakoa onartzea.*

13.1- Haututako eta saritutako lanak ustiatzeko eskubideak Lazkaoko Udalari doan eman-  
go zaizkio. Eskubide horiek lanen erreprodukzioa, banaketa, hedapen publikoa, eraldaketa  
eta egokitzapena hartzen dituzte barruan, balio hezkuntzaren eta berdintasunaren alorretan  
egiten diren kanpainetan erabili ahal izateko.

13.2- Antolakuntzak eta epaimahaiak oinarri hauetan kontuan izan gabeko egoerak ebatzi  
ahal izango ditu, baita haiek interpretatzean sortzen diren zalantzak ere.

13.3- Lan bat aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa guztiz onartzea dakar berekin.

#### *14. artikulua. Irudi eskubideak.*

14.1- Sari-banaketako ekitaldian, antolakuntzak taldeko argazki bat aterako die sarituei,  
komunikabideetan argitaratzeko. Sari-banaketako ekitaldira joanez gero, ulertuko da bai-  
mena ematen zaiola antolatzaileei izena edo goitizena eta taldeko argazkia argitaratzeko,  
Interneten, sare sozialetan edo komunikabideetan.

14.2- Antolatzaileak une oro arduratuko dira adingabeen irudia babesteaz eta errespetatzeaz;  
beraz, ez dute aterako lehen planorik, eta ez dute egingo identifikazio pertsonalik  
ere.

14.3- Parte-hartzailereren batek sari-banaketako ekitaldira joan bai, baina taldeko argazkian atera nahi ez badu, aurrez jakinarazi beharko du, gurasoren baten edo tutorearen bidez. Adingabeak 16 urte baino gehiago baditu, berak ere jakinarazi ahal izango du.

14.4- Eskubide hori guztiz errespetatu dezatela eskatuko zaie sari-banaketako ekitaldira joaten direnei; izan ere, haiena izango da grabatu edo ateratzen dituzten irudien erantzukizun osoa, baita haien erabilerarena ere.

14.5- Hori dena arautzeko, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko 1982ko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa hartuko da aintzat.

#### *15. artikulua. Datu pertsonalen babesa.*

15.1- Tratamenduaren arduraduna:

Lazkaoko Udala  
Euskadi Enparantza 1, 20210 Lazkao (Gipuzkoa)

15.2- Helburua:

Udalak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko antolatzen dituen ekitaldi, lehiaketa, tailer edo ikastaroetan parte hartzeko beharrezkoa den informazio pertsonala kudeatzeko tratatzen dira.

#### *16. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.*

Deialdi honetan emango diren sari eta orogarrien zenbatekoa guztira 1.200 eurotako izango da, eta hori 2025. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidak egingo da:

1.480.01.231.50 zenbakidun partida.”

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, dirulaguntza hauen 2025eko deialdia egitea onartu du.

### VII.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueren dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- 2025eko Gabonetako erakusleihen lehiaketa.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako, Lazkaoko Udalak 2025eko Gabonetarako antolatutako erakusleihen lehiaketa kanpainaren barnean, parte hartuko duten merkatariei eta herritarrei ondorengo sariak ematea:

- Merkatariari: lehen hiru merkatari sailkatuei Gabon-saski bana, 330 euroko guztizko balioa dutenak.
- Herritarrei: erosketa bono gisa sariak. 300 euroko sari bat eta 100 euroko lau sari, guztira 700 euro.

Guztira 1.030 euro ematea onartu da, eta ordainketak Udal aurrekontuaren 1 471.01.433.01 partidatik egingo dira.

#### VIII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei laugarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
IKER SUKIA MESAS	415 €	177,86 €
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	575 €	246,43 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>990 €</b>	<b>424,29 €</b>

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

#### IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

#### X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.